



Lasarte-Oria jaietan giro alaia kaleetan



**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxebako aseguruak
- Koiatxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



Nagusia 36, beheia 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46



HARATEGIA

BALERDI

URDAITEGIA

OSO ONDO PASA HERRIKO JALETAN !



Nagusia 50, beheia
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11



Geltoki Kalea 15 beheia
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585



Fruituen eta barazkien Donostiako merkatu zentrala




**S. Pedro jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!**



Tel.: 943 376 402
Faxa: 943 376 172



MERKA BUGATI



www.merkabugati.com
Hipodromo etorbidea 75
20160 ZUBIETA - DONOSTIA





1.955ean Okendo plazan beste eraikuntza bat ere bazen, "Caja de Ahorros Provincial".



1.995eko San Pedro jaietako haurren egunean, Erketzekoek emanaldia eskaini zuten.



2.001eko Santa Anako artisau azokan, oraindik zuhaitzak eta palmondoa zeuden.



Maratoiaren plaza ere izan da Okendo. Irudian 2.004koa, zuhaitz eta palmondorik gabe.

The Okendo

Okendo izan da Lasarte-Oriaren bihotza, urte osoan hainbat ekitaldiren eta San Pedro jaien beraien erdigunea. Zer gertatuko ote da aurtengo sanpedrotatik aurrera? Non elkartuko da jendea? Non egingo du dantzan? Non emango dira udaren filmak? Non egingo da "desfilea"? Non sortuko ote dira bikote berriak, petrila kentzen badute?

Okendo zaharraz ahaztu eta berrian pentsatu beharko dugu. Okendo berriak liluratuko al ditu herritarrak zaharrak liluratu dituen bezainbeste? Urtetan Okendo zaharrak lortu zuen xarma berezi hori lortuko al du? Lortu agian lortuko du, baina kostako zaio herritarren dioten begirunea eskuratzen.

Okendon garai batean igandero egiten zen dantzaldia, autoentzako bidea jarri aurretik. Geroago, kolore berezia hartzen zuen musika zegoen aldiro eta are biziagoa festa eta jai egunetan. Urte haietan, Okendo plazaren erdian zegoen palmondoa Mercerotarren aitek landatu zuen. Arbola institutuaren aurrera aldatu zenean hasi zen Okendo zaharraren gainbehera.

Okendo oinezkoen gune izango omen da. Horma bota eta handitu egingo da, modernizatu. Baina bitartean Okendo kendu digute. Lehenengo aldiz plaza itxita izango da jaietan. The end. Ez da ukendurik orbaina sendatuko duenik.

Ondo ibili, Okendorekin edo Okendurik gabe, Lasarten eta Orian festak dira eta. Eta bota adio irrintzi bat Okendotik pasatzen zareten bakoitzean. Denbora joan denbora etorri, garai txarretan, irria ezpainetan, ondo ibili jai egunetan.

**hurrengo
alea**

txintxarri

Uztailaren 6an, BEREZIA, San Pedroak.

Festatako ekitaldietako argazkiak

OHARRA: Uztailaren 6ra arte ez da Txintxarri-rik izango; Ale berezi horretan San Pedro jaietako argazkiak argitaratuko ditugu.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Lagun batek
eskatu dit
nolakoa zen kontatzeko.

OHARRA
Muntteri, AEKko Euskaltegiko
Gabriel Gavilan "Gavi" ikasleak
egindako idazlana da

Lasarte-Oria tropikala

Lasarte, ereserkiak esaten duen bezala, "beste herrien lokarririk gabe" jaio zen, orain dela 22 urte gutxi gorabehera. Oraindik gogoratzen ditut, kaleak zeharkatzen zituzten trenbide tarte batzuk. Izan ere, Lasartek bi tren zituen; horregatik, deitzen da herriko kale bat Geltoki Kalea. Ni, Okendon bizi nintzen, eta ederki gogoratzen ditut herriko jaiak; sokamuturra kaletik, Kolorin eta bere "y, y toma" eta abar. Okendoko plazan bi kiosko zeuden: La Marinera eta Petrarena, neska-mutikoak matigotxoak erostera joaten ziren bertara.

Gaur egungo Lasarteren ondoan oso desberdina zen. Kale batean gauza ugari topa zitezkeen: Uistin kalean adibidez, gezurra badirudi ere, lantegiak, etxebizitzak, dendak eta baserriak zeuden. Gaur egun errekek lur azpitik pasatzen dira, baina lehen ez zen hala, begi bistan izaten ziren. Horietako bat hiltegiaren ondotik pasatzen zen, eta a zer kiratsa! Puajjjj!!! Bi zine ere bagenituen: Tedoso eta Lasarte, eta kalean neska-mutilak lasai jolasten ziren, askoz ere auto gutxiago zegoen eta.

Orain, jubilatuta nago eta Institutoaren ondoan bizi naiz. Lasarte izugarri aldatu da, adibidez, bere izena, orain Lasarte-Oria da. Baserrietatik, bakarrik izenak geratu dira: Uistin, Atsobakar, Sasoeta. Auzoak asko hazi dira, nahikoa parke daukagu, eta auto pila bat ere bai. Batzuetan, apartakalekua bilatzea ia ezinezkoa izaten da. Berritua etorri da herrira. Anbulategi berria egin dute (hori bigarren aldiz edo hirugarrenez). Laburbilduz, gure herrian gauza asko aldatu dira, beno, alkatea izan ezik, beti berberak jarraitzen du, horrek ere gezurra dirudi, baina, egia da.

Ez dakit nolakoa izango den Lasarte-Oria etorkizunean. Txoritxo batek esan dit, 16 solairuko eraikin bat egin behar dutela hipodromoaren zubi ondoan. Horretaz gain, udal-etxe berria eta ez dakit zenbat etxebizitza. Azkenean, zenbat jende biziko da Lasarten? Eta hau guztia zertarako?

Ai ene Lasarte! Zenbat aldatu garen lehendik hona! Nondik zatoz eta nora zoaz? Barkatu, baina ez dut nire burua aurkeztu. Okendoko palmondoa naiz, eta Okendo aipatuz, hemendik ikusi ezin dudanez, Ostatu Berri taberna bota egin dutela esan didate, eta desagertu egin da. Ze pena! Non bukatuko da "La Berbena?"

Okendoko Palmondoa



Bertso berriak **Mikel Laboari** Ane Labakak **jarriak**

Kantuz hil zenari...

Doinua: Izarren hautsa



Bertso sorta honekin Ane Labakak Koldo Mitxelena literatur lehiaketaren lehen saria eskuratu du bertsoen sailean.





Jon Tecedor, nortasun handiko kirolari eta pertsona, omenduko du Udalak festetan

Lasarte-Oriako herriak Jon Tecedor Aginaga kirolari bikaina omenduko du aurtengo sanpedrotan. A-8an moto istripuan hil eta urte batera, aukeratu du Udalak herriko jaietan omentzeko. Halterofilian Espainiako txapeldun izan zen 12 aldiz, Europako txapelketetan, munduko hiru kopatan eta Sydneyko olinpiar jokoetan parte hartu zuen. Berak du oraindik estatuko errekorra ere. Ingurukoek kirolari bikaina eta pertsona hobea dela nabarmendu dute. Omenaldia ekainaren 29an San Pedro egunez burutuko da Udaletxeko batzar areto nagusian eguerdiko 12:15ean hasita.

Jon Tecedor lasarteoriatarra munduko pisu jasotzaile onenen artean izan zen, halterofilian buru belarri aritu zen hamar urteetan: 15 urterekin hasi eta 25 urterekin, 2000. urtean, Sydneyko joku olinpikoetan munduko onenekin lehiatu zen arte. Handik bueltan lehen mailako lehia utzi egin zuen, baina oraindik maila onean ari zen. Moto istripua izan zuen egu-

nean bertan, 2008ko ekainaren 14an, Euskal Herriko txapelketan parte hartu behar zuen Zizurkilen.

Autopistan, Aritzeta parean, Lasarte-Oriatik oso gertu izan zuen istripua eguerdian, Nuria Vegas betiko neska lagunarekin ezkondu eta 36 egunera. Alargunak badaki kirolari handia zela, baina beste alde batzuk nabarmendu dizkigu berare-

kin izan dugun elkarrizketan: "Izugarria zen pertsona moduan, lagunekin oso atsegina eta maitekorra. Horrelakoak esaten dira normalean pertsona bat falta denean, baina Jonen kasuan horrela zen. Kanpoan egon eta itzultzen zenean denek deitzen zioten, oso azkarra zen eta arazoa edozein zela ere, beti zuen konponbideren bat. Lasaitasun handia zuen egoe-

MONTSE ILEAPAINDEGIA

IGARO ONGI
SANPEDRO JAIK !



Juan XXIII enparantza • Lasarte-Oria •
Tel.: 943 366093

ONDO PASA SAN PEDROTAN !

INQUIETUD

Neurriak 36tik... 60ra



Nagusia 49
Tel.: 943 370 290





Nuria Vegasekin ezkondu eta 36 egunetara hil zen moto istripuan.



Bidaia zela Jon Tecedorren zaletasunetako bat. "Hainbat lekutan izan zen baina toki asko zituen oraindik ikusteko".

“ *"Olinpiar jokoetara joateko erronka jarri eta ez zuen lortu arte etsi. Atlantant egoterik ez zuen izan baina bai Sydney. Eta orduan erabaki zuen utzi egingo zuela".*

ra zailetarako. Ezer ikasi gabe asko zekien, oso obserbadoria zen. Errealista zen, baina jarrera baikorra izan ohi zuen. Helburu edo erronkaren bat jarri gero, haren bila saiatuko zen kosta ala kosta, baina bere bizitza zainduz eta inori kalterik egin gabe. Beti zen itxaropentsu, ez daukat ezer txarrik esateko".

emazteari utziko zuela. "Ni zerbaiten damu banaiz hara ez joateaz damutzen naiz. Bere unerik zoriontsuena izan zen. Luzatu egin zuen egonaldia, iraila hasieran joan eta urriaren 2ra arte egon zen han, hilabete osoa. Oso ondo egon zen, bere gurasoak ere han egon ziren,..."

Madril eta Lasarte artean

Hamalau urte egon ziren elkarrekin Jon Tecedor eta Nuria Vegas, horietatik soilik hiru aste ezkondu, baina bost urte elkarrekin bizitzen. Aurretik, urte asko eman zituen Jon Tecedorrek Madril. "15 egunerako joan zen eta sei urte pasa zituen" gogoratzin du Nuria alargunak, "Olinpiar jokoetara joateko erronka jarri eta ez zuen lortu arte etsi. Atlantant egoterik ez zuen izan baina bai Sydney. Eta orduan erabaki zuen utzi egingo zuela".

Itzuli zenean esan zion

Sydney 2000

Sydney, 25 urterekin, munduko 14. izan zen eta gerora bere aurretik sailkatu ziren bizpahiruk dopinaren aurkako probatan positibo eman zuten, hamar lehenengotatik oso hurbil izan zen. Battis Kortajarena bere entrenadorearen ustez bere olinpiadatik onenak Atenaskoa edo Pekingo izango ziren, baina, uztea erabaki zuen. Ordura arte, hori lortzeko gogor lan egin zuen eta behin lortuta lasaitu egin zen. Dena den, halterofilia bere bizitzaren parte zen ez, ez zuen noski erabat utzi, baina bai lehen mailako kiro-

la. Nuria alargunak gogoan du Madrilan igarotako lehen urtetan ez zuela horren ondo pasatu: "Oso etxekoa zen, lagunak ere garrantzitsuak ziren beretzat, eta asko kosta zitzaion. Dena den, azkeneko, han, Madrilan ere, beste familia bat egin zuen".

Nuria Vegasen iritziz, "tarma gainera igotzen zenean beste pertsona bat bihurtzen zen. Dena ahazten zuen". Oso argi dauka: "beti aipatzen dut. Jonek egin zuen une bakoi-tzean nahi zuena, beti, eta behartuta edota derrigortuta sentitu izan balitz agian ez

luke lortuko. Berririo hasita zegoen, baina beste era batera. Nolabait gaztaroaren parte bat galdu zuen, 19 urtetik 25era asko zaindu zen, egunero entrenatu, etxera etorri gabe, ez zen parrandara ateratzen... bizitza gogorra izan zuen".

Zaletasunak

Badakigu motorra zela Jon Tecedorren zaletasunetarikoa bat, baina bazituen beste batzuek bere alargunak aitortu digunez: dantza egitea, "oso ondo dantzatzin zuen", bidaia, lagun koadrila, "asteazkeneko afaltzin zuen lagunekin" eta hauekin batera "ni ere bai", dio lotsarik gabe alargunak. "Olinpiadetatik bueltan esan zidan: etxera nator baina baldintza batekin, urtero bidai bat egin behar dugu. Kanariasen, Grezian, Mexikon, Turkian eta ezkonbidaian AEBn izan gara. Sekula ez nuen hain zoriontsu ikusi. Olinpiadetan zoriontsu sentitu nuen baina ez nuen ikusi. Estatu Batuetatik lilurata etorri zen, bera handia da eta bere neurrikoa da. Han dena da handia, jendea ere bai eta ez zuen arazorik arropa bilatzeko. Amerikarra zela uste zuten baina berak Euskal Herrikoa zela erantzuten zuen. Bere grina handienetarikoa bidaia ziren, leku askotan egona zen, baina oraindik asko zuen ikusteko".

Familia ere oso garrantzi-

tsua zen beretzat, anai-arreba eta gurasoak. Gurasoak oso pozik ibili ziren Sydney. Euskal Etxean eta han bizi diren euskaldunen etxeetan izan ziren...

Etxekoia zela garbi dago. Inork ez dakien bitxikeria kontatu zigun Nuria Vegasek. "Hainbeste kontu polit bizi izan ditugu... Behin ordu bete elkarrekin egoteko etorri zen bisitan. Kotxea hartu eta Madriletik Lasarteraino. Telefonoz deitu zidan kabina batetik, eta jaisteko esan".

Hiru prestatzaile

Hiru entrenadore izan zituen Jon Tecedorrek. Karmelo Zarzuolorekin hasi zen eta honek denbora nahikoa ez zuenez, oso gaztetatik Battis Kortajarenak lagundu zion. Battis aita bat bezalakoa izan zen Jon Tecedorrentzat, asko miresten zuten elkar. Nuria Vegasek adierazi digu oso ondo lotu zirela eta hainbat urtetan elkarrekin izan zirela: "Orain Battis Espainiako hautatzailea da eta ziur Jonentzat hori harro egoteko modukoa izango zela, pena ez duela ikusi. Jonek beti esaten zuen Battis Kortajarena oso ona dela".

Lasarte-Oriako Indarra taldeko Manu Olaizolak ere asko animatu zuen. Nuria Vegasek adierazi digunez, "Jonengan ikusi zuen lortu zezakela berak amestu baina lortu ez zezakeena".



SUGATE

Sukaldeak

SAN PEDRO JAI ALAIK OPA DIZKIZUEGU !

MERKATUKO PREZIO HOBERENAK !

vegasa
Beti lehenengo egunean bezala

12
ANOS
vegasa

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



DESKONTU BEREZIAK
%20 desk. modelo desberdinetan

Pintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • www.sugate.e.net



YOLANDA TABERNA

ONDO PASA!

JANARIAK EMATEN DITUGU

• EGUINEKO MENUA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK...

Pintore 1 • 695 501890



Riojanos Erretegia



San Pedroko jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA



Ondo pasa
San Pedrota!

Kale Nagusia 40 • Tel.: 943 363964
LASARTE-ORIA

**BIYAK
BAT**



i. GRRUZOLA ARROZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

**SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Battis Kortajarena / Jon Tecedorren prestatzailea

‘Kirolari aparta zen eta pertsona bezala, hobeia’

Jon Tecedorren entrenadore izan zen hemezortzi bat urtetan, Battis Kortajarena. Villabonako kiroldegian izaten da egunero gazteak prestatzen eta bertan izan ginen berarekin. Aimar Irigoien harrijasotzailea eta zenbait aizkolari ere joaten dira berarengana.

Nolakoa zen Jon Tecedor kirolari moduan

Jende guztiak badaki kirolari bezala ona izan zela: Espainia-ko txapelduna, Europa eta Munduko txapelketatan postu oso onak lortu zituen, ... Azkenean, bere helburua olinpiadetara joatea zen eta Sydney izan zen. Beraz, kirolari bezala aparta eta niretzako pertsona bezala askoz ere hobeia.

Bere karrera olinpiadara joan zenean bukatu zuen, nire ustez adinik onenean, beste bi olinpiada gehiago egiteko. Baina sakrifizio handia izan zen beretzako 18 urterekin Madrilera joan eta 25 urtera arte han egotea, bere andre-gaia eta familia hemen Lasarten izanda. Beretzako gogorra izan zen.

Bere amaren ilusioa olinpiada batean ikustea zen eta hori azkenean lortu zuen. Behin lortuta, lasaitu, eta hemengo taldeari lagunduz jarraitu zuen. Espainiako txapelketetara joaten zen, bai taldeka, bai bakarka eta lortu zuen bi hiru aldiz berriro txapeldun izatea. Beste filosofia batekin jarraitu zuen, pentsatzen dut Madrilan pasatu zituen urteetako nolabait esateko errekuperatu nahi zuela. Oso azkar bizi zen, bere lana, bere etxea, eta bere gauzeekin, kirola piskat aparte utzita. Baina oraindik munduko onenen artean izateko fakultadeak zeuzkan. Atenas beretzat olinpiada ona izango zen eta Pekinekoa ere bai.

Pertsona bezala, hobeia zela diozu. Zer nabarmenduko zenuke?

Ogi puska bat zen. Askotan haserretzen nintzen berarekin, jende guztia zen bere laguna, baina kirolean beste jenio bat eduki behar da: nahiz eta laguna izan, tariman edo lehiaketan zure kontrarioa da. Onegia zen nire ustez, ez zuen bereizten.



Battis Kortajarena, Tecedorren prestatzaile izan da honek 15 urte zituenetik.

Bere pasioetako bat, motorra zen. Hitz egiten al zuen horretaz?

Niri motoan ibiltzea ez zitzaidanez gustatzen, niri ez zidan gehiegi komentatzen. Nuriari ere ez zitzaion gehiegi gustatzen, baina dirua aurreratu eta motoa erosi zuen. Gogoratzen dut istripua baino urte bete lehenago erosi zuela motoa eta nola herrira Zizurkilera etorri zen motoarekin.

Zenbat urte izan zineten elkarrekin?

Nik 15 urterekin ezagutu nuen. Talde hau hasi berria zen, eta bera Lasarten ibiltzen zen Karmelo Zarzuelorekin. Honek ezin zuen ondo atentitu bere lanarengatik, orduan entrenatzen hasi eta bere errendimendua jaitsi egin zen. Pena zen, jada txapelduna izanik eta esan zion ez baldin bazitzaion inporta nik lagun-duko niola.

18 urterekin selekzionadore bat etorri, ikusi eta Madrilera eraman zuen segituan. Eta bi urtera nazioarte mailan

emaitzak eskuratzen hasi zen. Bi mundietara, hiru euro-peotara eta konpetizio internazional askotara joan nintzen berarekin.

Madrilen zegoela jarraitu al zenuen berarekin?

Hiruzpalau urtetan egon nintzen bigarren entrenatzaile bezala. Beti egoten ginen harremanetan, telefonoz ere bai. Izaten zituen bere bajoi moralak ere, fisikoak baino gehiago. Oso ama zuloa zen eta kanpoan bizitzea gogorra egiten zitzaion. Nik pentsatzen nuena baino gehiago.

18rekin joan zen Madrilera, eta 25ekin Sydneyra...

Sidneytik bueltatu zenean ez zuen jarraitu nahi izan. Beste la Madrilan segituko zuen nahi zuen urte guztietan.

Bere lorpenik handiena ordukoa izan zen, ezta?

14. izan zen Sydneyn, baina bi edo hiru izan ziren positibo eman zutenak, beraz uste dut, 11. izatera iritsi zela. Bi behintzat gainditu zituen, seguru, eta diferentzi oso gutxi zen hamargarrenetik. Hutsigite bat bakarra eduki zuen arrankada batean. Eta hiru edo lau postu galdu zituen.

“ Ogi puska bat zen eta kirolean beste jenio bat behar da: laguna izan arren tariman zure kontrarioa da.





Villabonako kiroldegian, hainbat garaikur gordetzen dituzte eta Jon Tecedor ere beti daukate gogoan.

“ Nik beti edukiko dut pena.
Fakultateak zituen Olinpiadan edo mundialean txapeladun izateko.

Dena den, zailena olinpiadetara joateko marka egin eta munduko 15 lehenengo barruan sartzea zen. Bi modu daude olinpiadetara joateko: nazio batean inor ez badago, komite internazionalari eskerra egin eta parte hartzeko aukera ematen zaio nazio bakoitzeko bati eta bestela, lau urtetan munduko rankinean 15 aurrenketan egon behar du. Eta berak lortu zuen hori. Bere postua lortu zuen.

Pisu handitan ibiltzen zen, ezta?

Bai pisurik zailena da hori. 15 urterekin jada 82 kilo pisatzen zituen, 16-17kin 90etik gora urte pare batez eta 20 urtera arte 108ko mailan egon zen. Gero kategoriari aldatu eta 105etik gorakoan ibili zen.

Zoritxarreko istripua gertatu ez balitz, segitzeko moduan izango zen, ezta?

Bai eta kasualitatez, txipa jarri zitzaion 200 kilo altxatu nahi zuela eta oso gustura nengoen. Banekien segituen lortuko zuela, eta 200 kilo altxatzen dituenak ez du lehiaketetan inoiz paper txarrik egin. Hasi zen entrenatzen eta 15 eguinean, hiru asteen gehienez, 190 kilo egiten ari zen, segituan. Esan nuen, 200 kilo ez, horrela segituz, lehengo markak egingo ditu berriro. Kristoren ilusioarekin zebilen,... Eta juxtu debuta egin behar zuen egun hartan bertan Zizurkilen, Euskal Herriko txapelketan. Ikusi gabe gelditu ginen.

“ Berriz entrenatzen hasi eta segituan 190 kilo egiten ari zen. Esan nuen, 200 ez, lehengo markak egingo ditu berriro.

Beraz, berriro onenen artera itzultzeko moduan ikusten zenuen?

Bera ez zen jartzen, utzi zuenetik ez zuen prestatu ezta hilabete oso bat ere jarraian. Txapelketa 15 egunetan prestatzen zuen. Nahikoa zen beretzako. Eta irabazi. Gustura ikusiko nuen, urte bete segidan etorri bazen ordu pare bat edo ordu terdi. Nire ustez lehen zeukan marka baino gehiago altxatuko zuen, fakultateak, izugarriak, zituen.

Lan egiten zuen,... ba al zuen erabat profesionala izateko aukerarik?

Elektrizitatea ikasi zuen eta horretan aritu zen. Gero golf-ean eta azken urtetan pintura enpresa batean. Baina nahi bazuen jarraitu zezakeen kirolean. Hemen ere izan zituen eskaintzak, Euskal Gobernua, Kirol di, federazioa,... marka egiteagatik ere hainbeste eta gainera aparte lana egitea bazuen, baina berak ez zuen konpromisorik hartu nahi. Hitzeko gizona zen. Ez zen konprometitzen. Gurekin bakarrik. Nik deitzen banion beti etortzen zen. Ekipoari sekula ez zion esan ezetzik. Esaten banion taldeko bat lesionatu zela eta etorriko zen, beti etortzen zen. Borondatea, guztia, zuen.

Nik beti edukiko dut pena. Fakultateak zituen Olinpiadan edo mundialean txapeladun izateko.

Hortik aparte aurrean eta goian dabilzanak, txirrindula-

ritzan gertatzen den bezala, ez dabilta espagietekin, eta bera zen naturala. Utzi eta urtetara, ibili gabe 190 kilo, edo 200 kilo altxatzeko kapaz dena,...

Villabonako kiroldegian ere asko maite zuten, ezta? Aimar Irigoienek apustua irabazi eta berari eskaini zion,...

Xelebrea izan zen nola ezagutu ziren biak. Gimnasioan zen Aimar eta Jon sartu zenean, kriston gorputza zeukan eta Aimarrek: "joño hi Tecedor izango haiz", "eta hi Aimar", besteak. Gogoan daukat, biek nola eman zioten elkarri eskua eta ordutik lagunak ziren.

Eta zuk, zein kirol egin dituzu?

Rugbian zortzi urtez egon nintzen selekzioan. Denboraldia bukatzean, udan, atletismoa egiten hasi nintzen, lasterketa laburrak, 100 metro, saltoak eta pisu jaurtiketa, eta gero 19 urterekin edo, pesak egiten hasi nintzen udan, halterofilia. Atletico SS klubean bertan zegoen talde bat. Han hasi nintzen eta gero, rugbia uzten halterofiliarekin segitu nuen. Disfrutatu egiten nuen, eta 37 urtera arte aguantatu nuen. Españako txapelketara joaten nintzen. Gero gazteekin hasi nintzen.

Gazte batzuek badituzu onak, ezta?

Bai, Iker Hernandez 17 urterekin Tailandian egon da munduko txapelketan, Igor Sasiainek 18 urte ditu eta hiru aldiz izan da Europako txapelketan eta figura Teddy Martinez Madrilen dago. Aurrean Ibero amerikako txapelketan eta Europakoetan egon da. Europako Elkarteko txapelketan hirugarrena izan da. Aimar Irigoien eta aizkolariak ere etortzen dira. Kirolarien prestakuntzan pisuak egitea inportantea da.



Serranos igeltserotza iturgintza

Gas-instalazioak
Berokuntza eta pintura

ONDO PASA JAIK!

Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943 366681 • LASARTE-ORIA

aldika PRODUCTOS SELECTOS

produktu bereziak

ahatekinak
ehiza eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

Ondo pasa S. Pedro jaiak!

Industrialdea 1920 943 37 70 89
Lasarte Oria aldika@euskalnet.net

DANA ONA JATETXEA

ONDO IBILI JALETAN!

- EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA
- JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO
- ETXeko ESPEZIALITATEA: PARRILAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

restaurante@danaona.com

ZUBIETA (HIPODROMOAREN ONDOAN)
TEL.: 943 365347 / 943 361731 • FAXA: 943 366020

Ttakunen egitarau zabalak euskal giroa eta parte hartzea bultzatzen ditu

Kantujira da aurtengo berrikuntza nagusia. Haurren bazkaria, sorgin dantza eta bertso saioa, ohikoak.

Azken urteetan egin duen bezala, aurten ere, Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro jaietako zenbait ekitaldi antolatu ditu. Egitarau zabal honen helburua, festetan euskal giroa eta jendearen parte-hartzea bultzatzea da.

Kantujira

Kantujira izango da aurtengo berrikuntzarik nabarmenena. Lehenengo aldiz egingo da herrian eta Donostiako Kantujirako kideak etorriko dira laguntzera.

Xumela abesbatzak gonbidapena egin nahi die abestea gustatzen zaien herritar guztiei. Errepertorioa oso ezaguna izango da, betiko kantu tradizionalak abestuko dira batez ere.

Hitzordua, ekainaren 28an San Pedro egunez, goizeko 11:30ean izango da Sagardotegi kalean. Ordu eta erdiko ibilbidea izango da herriko kaleetan zehar.

Haurren herri-bazkaria

Festak hasi bezain laster, ekainaren 28ko eguerdian, haurrak martxan ipiniko dituzte Ttakuneko begiraleek, haurrentzako herri bazkaria antolatu baitute. Herri guztietako jaietan izaten da, egun batean herri bazkari edo afaria. Festetan, koadrilak biltzen dira eta festa giroan bazkaldu edo afaltzen dute. Hau horrela izanik, begiraleek haurrekin herri bazkaria egitea proposatu zuten. Lehenengo urtean izan zuen arrakasta ikusirik, jadanik badira zazpi urte (aurtengoarekin zortzigarrena) bazkari hau antolatzen dela.

Lehenik eta behin 13:30ean haurren kalejira, Zumaburuko plazan hasi eta Atsotabak auzoan bukatuko da.

Zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrentzat dago



Lehenengo urtean bezalaxe aurtengoan ere giro bikaina izango da zikiro afarian, nola ez!

zuzendua bazkari hau. 14:00ak aldera hasiko dira bazkaltzen, eta aurtengo menua izakoa bezalako izango da izango da: makarroiak, gazta, tomatea eta postrerako yogurta.

Hala ere ekinza hau ez da jaietako lehenengo egunera mugatzen, baizik eta astebate lehenago hasten dira gai hau lantzen. Lehenik eta behin ikastetxeetan kamisetak tindatu egiten dituzte. Koadrila bakoitzak bere blusa izaten du, eta egun honetarako bere kamiseta. Kolore zehatz batekoa eta koadrila bakoitzari nortasuna ematen dion izen batekin.

Bazkaldu ondoren, eta udarako beroa uxatu nahian, 15:00ak aldera Itsasontzia urperatu ur-jolasarekin hasiko dira. Beste hainbat jolasen ondoren, Busti Blai ur-jaiari emango zaio hasiera. Hau

izango da haurrei gehien gustatzen zaien jaia: etxez etxe joatea, balakoipean ipini eta ura botatzeko eskatzea.

Lero hauetatik deialdi bat egin nahi diegu Atsotabak auzoan bizi direnei. Gogoratu ekainaren 28an bertan izango dela haurren herri-bazkaria eta jolas guztien ondoren Busti Blai ur-jaia egin ahal izateko beraien laguntza ezinbestekoa dela; beraiek ura botatzen ez badute ezin izango baita jairik burutu.

Beraz, badakizue, animatzen zaren guzti-guztiak zaudete haurren herri-bazkari gonbidatuta. Animatzen denak Ttakunen eman behar du izena.

Sorgin-Dantza

Egun berean, arratsalde, Sorgin-Dantzaren desfilea izango dugu herriko kaleetan zehar. Sorgin-jaiaren sorrera gaur

egun desagerturik dagoen Tximua elkarteari zor diogu, beraiek antolatu zuten 1992ko ekainean lehen aldiz jada ohitura bihurtu den ekitaldi hau. Argi zizutzen lortu beharreko helburuak: alde batetik, Lasarte-Oriarekin identifikatuko zen jaia antolatzeko, eta bestetik, festetan euskal giroa indartuko zuen jaia lortzea. Ttakunek 1994. urtean hartu zuen bere gain Sorgin-Dantzaren antolaketa.

Lehen urteetako balantzea positiboa izan da benetan. Alde batetik, ziurtatu egin da behin betirako dantzak urte-urte iraungo duela. Bestetik, Lasarte-Oriari nortasuna ematen dion jaia bihurtu da, eta bukatzeko, jai honen bidez euskal kulturak herriko jaietan merezi duen tokia berreskuratzea lortu da.

Ekainaren lehen egunetan hasi ziren Sorgin-Jaien parte

hartuko duen jendearekin ikastaro eta entseguak Felix Telleriaren gidaripean. Ekitaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Oria auzoan eta 20:00etan bukatuko da Hipodromo etorbidean, Sorgin Jaien gunearen parean. Urtero Okendo plazan bukatu ohi da dantza, baina aurten bertan hasiko diren lanak medio, ezin izango da bertan dantzatu.

Bidean zehar ere zenbait lekutan dantzatzeko dute: Orian bertan, Biyak Bat zaharren egoitzaren aurrean, Udalteixaren parean eta azkenik Sorgin-Jaien gunearen ondoren. Azkeneko dantzaren aurretik pregoia irakurriko dute Solaskide programako kideek. Egitasmo honen helburua euskara ikasten ari direnei laguntzea da, babesa eskaintzea, beraien bizimodu euskaraz egin dezaten, euskaraz bizi daitezen.

SAN PEDRO JAI ON-ONAK
OPA DIZKIZUEGU!

Etorri gure jaki goxoak probatzera

VIÑA del MAR
TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

ISU

IGARO ONGI SAN PEDRO JAIAK!

- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222





Urtero ko ohiturari jarraituz Sorgin Dantzako lagunak beraien erakustaldia egingo digute denon gozamenarako.

Ehun lagunetik gora ari-zen diren dantzan, eta haurrek, gazteek eta helduek parte-hartzen dute. Herriko festak alai eta dantzan haste-ko primerako jarduera da.

Zikiro afaria

Sorgin-Dantzaren ekitaldia amaitu ostean, urteroko herri-afaria, hau da, zikiro afaria izango da anbulatorio ondo-

ko plazan iluntzeko 21:00etan.

Aurreko urtean 180 pertsona inguru bildu ginen zikiroa jatera, eta aurtengorako ere beste horrenbeste izatea espero dugu. Nahi duzuen guztiok txartelak salgai izango dituzue Jalgin eta Ttakunen 18 euroen truke. Festa giro euskaldun eta alai batean afaldu ondoren, afa-

loste girotua izango da, Amalur taldearen eskutik. Hankak pittin bat mugituz festei hasiera ona emango zaie. Beste hainbat sorpresa ere egongo dira seguruenik; azken hiru urteetan bezala, afaria Sorgin Jaiei gunean egiten baita, eta zikiro afariak bat egingo du Sorgin Jaiei egitarauarekin.

Sagardo dastatzea

San Pedro egunean, berriz, sagardo dastatzea izango da. Ekitaldi hau ere lekuz mugitu behar izan dugu Okendo plazan hasiko diren lanak medio. Sagardo dastatzea Villa Mirentxoko atzealdean egingo da, trinketeko frontoiaren ondoan. Arratsaldeko 18:00etan hasi eta 20:00ak bitarte luzatuko da. Herriko zazpi baserrietako sagardoa eskainiko da probatzeko: Sollanekoa, Buenabastakoa, Tellerikoa, Arrillagakoa, Zubillagakoa, Larrekoka eta Zaltzekoka. San Pedro egunean etxean geratzeko aitzakiarik ez da, beraz, aurtengoan ere.

Bertso-saioa

Urtero egiten den San Pedro-etako bertso-saioa izango da herriko patroiaren egunean.

San Pedro jaia 2009 egitarauaren barnean eta San Pedro egunean, ekainaren 29an, izango da bertso-saioa kulturetxeko auditorioan gaueko 22:30etik aurrera. Sarrera 5 eurotakoa izango da eta aurrez hartzea komeni da. Ekitaldiaren antolatzailea Ttakun Kultur Elkarteko bertso-lantaldea izango da urteroko moduan, herriko jaietan ere bertsozaleasuna zabalatzeko asmoarekin.

Aurreko urteetan bezala aurtan ere sei bertsolari izango dira kantuan: Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Beñat Gaztelumendi, Amaia Agirre, Ander Lizarralde, Patxi Etxeberria eta Unai Muñoa. Gai-jartzailea, berriz, Pablo Suberbiola izango dugu.

Esan beharrik ez dago goimailako bertsolariak izango direla kulturetxeko oholtza gainean. Ez dute, beraz, aurkezpen handirik behar.

Musika Jalgin

Jalgi kafe-antzokia ere festa giroan murgilduko da. Asteartean, hilaren 30ean, kontzertu bat antolatu dugu gaueko 23:00etatik aurrera. Happening Jalgin izendatu dute emanaldia, eta omenalditxo bat egingo zaio Itoiz taldeari, bere diskografia errepasatz.

Ttakun Kultur Elkartek, berriz ere, San Pedro jaietarako ekitaldi ugari antolatu ditu. Guztiek izaten dute arrakasta handia, eta aurtan ere horrela izatea espero da. Prestaketa lanak aurreratu daude, eta eguraldiak lagun-tzen badiu, guztiok ondo hauetako edozein ekitalditan primeran pasatzeko aukera izango dugu.

Itoiz-en omenez Happening Jalgin

Jokin Telleria eta beste lau musikarik Itoiz-en hainbat abesti eskainiko dituzte.

Batez ere Espaloian eta musikaz Blai diskotako abestiak, hilaren 30ean gauez.

"Gure baserrian gaude / entsaia ta entsaia paratu gabe / itsas ondoan ere / sagardoa edanaz ta porruak ere / ta zer-beza batzuk edaten ere / ta gero..." Itoiz taldearen Happening baserrian abesti mitikoaren letra da. Happening baserrian hori Happening Jalgin bihurtu du musikari talde batek. Hitzordua sanpedrotan da, hilaren 30ean, asteartea,

gaueko 11etan hasita, Jalgi Kafe Antzokian.

Itoiz taldearen ibilbide eta diskografiaren errepasoa egingo du Jokin Telleria Lasarte oriatarak beste lau lagunekin osatu duen boskoteak. Mutrikun duela 25 urte baino gehiago sortutako taldeari omenalditxo bat egingo zaio ekainaren 30eko "Happening Jalgin" kon-



tzertuaren bidez. Jokin Telleria bateriajoleak azaldu digunez, "Itoiz musikalki asko gustatzen zaigu eta horregatik erabaki genuen omenalditxo hau egitea. Duela bospasei urte ezagutu genuen taldea, oso musika ona egin zuten eta pentsatu dugu abesti batzuk prestatu eta

eskaintzea, beraiei omenaldi modura, ez talde mitikoa delako, beraien musika gustatzen zaigulako baizik".

Taldean, aipatutako Jokin Telleria herritarrarekin batera beste lau lagun izango dira: Josu Etxeberria andoaindarra ezaguna da Jalgiko Jam saio-

etan parte hartu duelako (abestu egingo du), Alvaro Remacha andoaindarrak eta Aritz Manterola Zarauztarra-ko joko dute gitarra eta Ibon Jiri Donostiako Gros auzokoa-ak bajua. Oraindik ez du taldeak izenik, baina talde bat osatzeko asmotan dira. Beroztzeko, happening hau antolatu eta eskainiko dute.

Espaloian eta Musikaz Blai diskoetako abestiak izango dira emanaldiaren oinarria eta beste diskoetako abesti batzuek ere joko dituzte. Polita izango da hain ezaguna izan den eta hainbeste zale izan dituen taldearen abestiak berriro zuzenean entzutea.

Musikazale dira mitomano baino gehiago eta Itoizen kantauk zuzenean ikusi nahi dituztenak gonbidatzen dituzte hurrengo asteartean gaueko 11etatik aurrera Jalgin burutuko den kontzertura.

LEKU PAREGABEA...

...ezkontzak ospatzeko.
...enpresako bazkariak egiteko.
...eguneko menuez gozatzeko.
...eguraldi ona denean,
kanpoan bazkaltzeko edo afaltzeko.

Asteburuko menua 28 €+ BEZ
Sagardotegiko menu berezia 25,70 €+ BEZ




Ondo pasa herriko jaietan!



Araeta
JATETXEA

Berridi bidea 22 • 20160 ZUBIETA
Tel.: 943 362 049 • Fax: 943 366 073
www.araeta.com





Martin Negredo

Nire ustez jaietako ekintza nagusienak Okendon izan beharko lirateke. Erdialdean jende gehiago ibiltzen da. Sasoe- ta eta urruti geratzen dira eta, ez dakit, baina, jende gutxi joango da. Nik ez dakit zer egingo duan. Ea zer esaten duen emazteak, hark daki nora joan. Bilobekin eta joango gara, haientzat antolatzen diren ekintzetara. Zer edo zer ere erosi eta... horrela ibiliko gara, denbora-pasa. Niri pilota jokalaria profesionalen pilota partiduak egotea gustatuko litzaidake. Afizionatuen partiduak izaten dira, baina profesionalena nahiago.



Pepi Eraunzetamurgil

Nire galdera da, ea ez ote dagoen beste tokiren bat erdigunean ekintzak egiteko. Auzoak urruti geratzen dira, erdigunean beste tokiren bat bilatu beharko litzateke. Nire ustez, ekintzak sakabanatuta geratuko dira, eta, jende gutxiago joango da. Baina, beno, azkenean beste toki batzuetan egiten badira jaietako ekintzak, ba, hori onartuko beharko dugu.



Roberto Setien

Gaizki iruditzen zait jaiak beste nor- bait eramatea. Jaiak, Okendo inguruan ospatu dira beti. Egia da bestalde, auzoak ere herriaren zati direla, baina Okendok jende gehiago erakartzen du, erdigunea baita. Ni tabernari naiz, eta tabernan jende askok hitz egin du jaien kontu horretaz. Gehienak toki aldaketaren aurka daude. Nik uste dut jaiak nahiko eskasak izango direla.



Jasone Larrarte

Gaizki iruditzen zait ekintzak beste toki batzuetara eramatea. Nahiago nuke ekintzak erdigunean izatea, eta ez sakabanatuak toki desberdinetan. Nire ustez, jaiak gehienbat herri erdian ospatu behar dira. Ez da erraza, baina oraindik ez badituzte obrak hasi, ez dakit zergatik ez dituzten ekintzak erdigunean egin behar. Obrak hasi behar dira? Hori da nik egiten duan galdera. Ekintzak beste toki batzuetara eramanez, jaietan parte-hartze txikiagoa izango da. Hala ere, ekintzak beste toki batzuetara eramaten badituzte ere, ni batez ere erdigunean ibiliko naiz.

Kalean galdezka

Zer moduz sanpedroak Okendorik gabe?



Luis Barrantes

Ez dut egoki ikusten ekintzak beste toki batzuetara eramatea. Obrak aurreratu edo egin beharko litzukete, jaiak datozenerako erdialdea prest egon dadin. Baina, beste erremediorik ez badago, hala izan beharko da. Zer egingo diogu! Hala ere, joango naiz ekintzak dauden tokietara. Ez asko, baina bilobekin joateko asmoa dut, txikientzako antolatutako ekintzetara. Okendon izango balira, berriz, erraza- go, gutxiago ibili beharko nuke eta.



Antonio Nuñez

Obrek irauten duten bitartean jaiak beste toki batzuetara eramatea egoki ikusten dut. Adibidez, Sasoea proposa da. Gainera, azken finean, herriko beste auzo bat da, herriaren parte da. Ez dut arazorik ikusten. Gero, obrak bukatzen direnean, normalena jaiak berriro erdigunera eramatea izango da. Nik, aurrean ere, beti bezala parte hartuko dut. Herri kirolak gustatzen zaizkit bereziki, eta horiek dauden tokira joateko asmoa dut.



Ascensión Ballesteros

Oso ohituta gaude jaiak herriaren erdigunean egitearekin, baina toki horretan ezin bada, beste toki batzuetan egin behar. Auzoetan ere jende asko bizi da, eta auzoak ere herria dira. Adibidez, Sasoea orain oso ondo dago. Toki zabala da, eta ekintzak egiteko toki aproposa dela uste dut. Azken finean jendeak, eta bereziki txikiek, jaiak nahi dute, eta ekitaldiak dauden tokietara joango dira. Nik, behintzat, ez dut arazo handirik ikusten.



Ana Belen Fierro

Gaztea nintzenean oso ondo pasatzen nuen Okendon, eta nik bertako oroit- zapenak ditut. Niretzat jaiak Okendon ziren, txosnak, sokamuturra... ez zegoen beste auzo batzuetara joan beharrik. Orain, ekintzak sakabanatuta geldituko dira. Ikusi egin behar zenbat jende joaten den auzoetara. Jaiak aste barruan ere badira, eta jende gutxiago ibiliko dela uste dut. Nik haurrak ditut, eta joango naiz ekintzak dauden tokie- tara nahiz eta urrutiago egon.

LIBRERIA MAITE

ONDO PASA JAIAK!

Geltoki 12
Tel.: 943 372791
LASARTE-ORIA

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXKO POSTREAK
- GOSARIAK

Jalai
Cafe bar

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

SAN PEDRO JAI ALAIAK OPA DIZKIZUEGU!

EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

TEL.: 943 372760



15.urteurrena

Eskerrik asko
gugan jarritako
konfidantzagatik



Geltoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
salazar@salazarpro.net
www.salazarpro.net

**ONDO PASA
HERRIKO JAIETAN!**

**REVLON
PROFESSIONAL**

**ALCANTARA
COSMETICA**

**academie
scientifique de beauté**

**L'ORÉAL
PROFESSIONNEL**



David Egizabal
635 70 02 86
(hitzordua aurretik)
Juan XXIII plaza
Lasarte-Oria
822 elkargokide zk.

Fisioterapia orokorra, Masaia, Esku teknikak...

Lunbalgiak, cervicalgiak, dorsalgia...

Zoru pelbikoa

Esfortzuko inkontinentzia, larrialdiko inkontinentzia, mixtoa

Akupuntura

Karpiano tuneleko sindromea, Dupuytren sindromea,
oinazpiko faszitisia, artrosia, buruko minak...
lokomozio aparatuaren gaitzak orokorrean



OSO ONDO PASA JAIK!

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA



ONDO PASA HERRIKO JAIETAN!

Antonio Benito



**Erregistratzeko kutsak
eta pantaila taktila
dutenak**

Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA



TXARTEL · TXOKO
Jatetxea
Luciano Betelu

ONGI IGARO HERRIKO JAIK!!

- Garaiko jakiak
- Egunekeo menua
- Kartako eskaintza

Zirkuitu ibilbidea 1 • Tel.: 943 370192
Lasarte-Oria • Gipuzkoa

**ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA**

**ONDO PASA
JAIK!**

**Maite
Erkizia**

Bias de Lezo 5, behea
Tel.: 943 370234
LASARTE-ORIA

MAITE

**ONDO PASA
HERRIKO JAIETAN!**

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



OSO ONDO PASA!

**MEKANIKAKO ZERBITZU
OROKORRA**

Jaizkibel plaza 2, behea • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

**E
P
E
L**



Goikale 1 • Tel.: 943 362701 • LASARTE-ORIA

- AUKERA IZUGARRIA
- pintxoetan
- razioetan
- ogitartekoetan
- plater konbinatueta

**TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK
ETA OLAGARROA**

**S.PEDRO JAI
ALAIK OPA
DIZKIZUEGU!**



**InmoGes
Inmobiliaria**



ONDO IBILI JAIETAN!

Kale Nagusia 12-3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376662





Aurtengo jaietako egitaraua

San Pedro jaietarako herri girotu eta gorputza prestatzen hasteko, larunbata 27an tabernariak haur eta helduentzako egitaraua prestatu dute, txaranga, haur parkea, batukada eta kontzertuak gauetan.

Igandean txupinaren ostean, haurren gozamenerako bereziki antolatutako egitaraua. Jokoak, parkeak, ur jolasak, haurrentzako dantzakiak... Herriko haurrek lau egunetan ahaztu ezineko jaiak izan ditzaten. Errugbian eta ziklo-krossean trebatu ahalko dira gainera, herriko Beltzak Errugbi taldeak eta Bazpi txirrindulari eskolak antolatu dituzten egitasmoi esker.

Danborrada, bigantxak... Eta kalean giro ona sortzeko Trapu zaharrak taldearen El concursazo, Oria txaranga eta Iturengo Joaldunen diana San Pedro egunean. Okendo itxia dagoela eta, gaueko ekitaldiak Andatza eta Isla plazara mugitu dituzte bi giro ezberdin sortu nahian. Helduentzako dantzakiak Isla plazan izango dira eta gazteen kontzertu-gunean, Andatza plazan, berriz, disko festa, Gatibu, Ttakuntronik Djen emanaldia...

Ohiturazko suak eta zezen suzkoak Isla plazan antolatu den II. Maketa Lehiaketako irabazleen kontzertuaren atariko izango dira. San Pedro jaiak amaiera emateko era paregabea, beraz.



Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin

BEGINATU GURE ESKAINTZAK !

**SAN PEDRO JAI ON-ONAK
OPA DIZKIZUEGU !**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
e-maila: jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com




Aldez aurreko ekitaldiak

Ostirala 26

10:00 - 13:00

Kuadrillen arteko Futbol Txapelketaren finalak Udak Kirolegian.

11:30 - 14:00

10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteentzako jolasak eta tailerrak Isla Plazan.

17:00

Kanta, poema eta txisteen lehiaketa Jubilatuen Elkartean. Aurreko egunetako jolasetako sariak banatuko dira.

20:00

Alboka eta Alboka Txiki abesbatzen kontzertua, Brigitar Mojen komentuan.

Larunbata 27

10:00

Haur Errugbi txapelketa eta haurrentzako jolasa (6 urtetatik aurrera), Michelineen, Beltzak Errugbi taldeak antolatuta.

11:30 - 13:30

Puzgarriak REM ikastetxearen parean.

16:00

Calvako txapelketa Atsokarriko zelaian.

17:00 - 19:00

Txaranga herriko kaleetan.

17:30 - 20:30

Puzgarriak REM ikastetxearen parean.

19:00 - 20:30

Los Olvidados kontzertua Andatza Plazan

20:00 - 22:00

Batukada herriko kaleetan barrena ibiliko da.

23:30 - 02:30

Rockeko kontzertua, *The Rock Sifredi Band* eta *Aerosol* taldeak, Andatza Plazan.



Tabernarien eguna

Zergatik ezin dituzte jaiak gozatu Lasarte-Oriatik kanpo lan egiten dutenek? Zergatik ez ditugu jaiak larunbatean hasten? Horiek tabernariak urte hasieran egindako galdarak. Geroztik, San Pedro jaien atariko izango den eguna antolatu dute.

Heldu, zein haurrentzako beroketa eguna bihar izango

da, ekainaren 27a. Guztientzako festa antolatu nahi izan dute ostalariek eta horregatik adin ezberdinetarako ekintzak egongo dira.

Txaranga eta batukadak giroa alaitu eta musikaz beteko dituzte herriko kaleak.

Ettxeko txikiak edeki pasatzeko aukera izango dute Landaberri BHLren ondoan

antolatu diren puzgarri, jolas eta aparraren festari esker.

Andatza plazan, berriz, pop eta rock kontzertuak izango dira arratsalde eta gauean.

Los Olvidados, *The Rock Sifredi Band* eta *Aerosol* taldeak izango dira giroa berotu eta festa ordu txikiak arte luzatuko dutenak.

Igandea 28

10:00 - 11:30

